

# dek

# EUSKALTEGIA

● / 2013-III-14 osteguna /



'EMAN EUSKARA ELKARRI'

## Korrika 18, «indarrakin»

II EGILEAK  
AEK-ko ikasleak

KOMIKIA

### Hernani Euskaldunberri // III



EUSKARAZ BIZIZ IKASI!

### Euskara ez da ikasgelan soilik ikasten. Hori oso argi daukagu AEK-ko ikasleok // IV



# EUSKALTEGIEN TXOKOA

## AEK EUSKALTEGIA

13 Euskaltegien Txokoa kaleratzen da Hernaniko AEK eta Udal Euskaltegiek, Hernaniko Udalak eta Hernaniko Kronikak daukaten elkarlanari esker.

# Korrika 18, «indarrakin»

Euskara indartzeko badugu nola egin berriro ere; bi urteroko KORRIKA: 'Eman euskara elkarri'.

**K**orrikaren 18garren edizioa da. Aurtengo Korrika Andoainen hasiko da gaur eta Baionan bukatuko da 24an. Hernanitik larunbatean pasako da, martxoaren 23an. Arratsadeko seiak inguruan.

**2000 kilometro gelditu gabe** 2013an, bi mila kilometro baino gehiago egingo dira euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe. 11 egunez izango da Korrika.

### Ikasleak, omenduak

Korrikak, euskalduntzen eta alfabetatzen ari garen milaka eta milaka ikasle omendu nahi ditu aurtén. Aurtengo leloa *Eman Euskara Elkarri* da. Korrika 18k «eman euskara elkarri» dio, euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza behar dugulako. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko.

Aurtengo abestia, *Bagoaz* izango da, Esne Beltza taldeak egina.

### Dirua biltzen, euskararen alde

Korrika Euskal Herriko Kultura da. Korrika, euskara bultzatzeko eta dirua euskararen alde biltzeko egiten da.

Lau era desberdin dauzkagu Korrikan parte hartzeko:

- Diruz lagundu: Bono eta materialak erosi ditzakegu. Edo lagundu dezakegu petoak eramaten eta diru bilketan parte hartzen edo dirua sartzén kontu korrontean.



Orain dela bi urte, gaez iritsi zen Korrika Hernanira; aurtén, arratsaldeko 18:00ak aldera iritsiko da. Urnietatik etorriko da eta Astigarragarako bidea hartuko du.

- Korrikaren berri eman: webgunea dauka eta zure korrikaren aldeko berriak jartzeko aukera dago.

- Korrikan bertan parte hartu: hasierako eta amaierako jaialdian parte hartzen edo egunero bizkarrekoa jarri eta korrika eginez lagundu daiteke.

- Enpresek ere parte hartzeko modu desberdinak dauzkate.

### Korrika Kulturala, Biterin

Beste korrika bat ere badago, hau da, Korrika Kulturala. Badaude aktibitate desberdinak, adibidez: hitzaldiak, bideoklipak, filmak, antzerkiak... Hemen, Hernanin, Biterin izango da.

Bestalde, martxoaren 23an hainbat ekintza antolatu dira herrian, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatzen ditugu. Anima zaitzete!

## MARTXOAK 23 - KORRIKA HERNANIN

**11:00**, Gazte Gunea (11-16 urte bitartekoentzak). Biterin edo Plazako arkupetan (Gazte Txokoak antolatuta).

● Marrazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketa

● Txapak egiteko aukera

● Musika

● Hamaiketako

● Aurpegiak margotzeko aukera

● Punteria jolasak

**11:00**, Pilota partiduak Tilosetan (Pelota elkarteak antolatuta).

**12:00**, Kantu jira herriko kaleetan zehar.

**14:00**, Bazkaria Atsegindegín.

**18:15**, Ikasleei omenaldia

Txantxillako errotondan.

**18:30**, Lasterketa ofiziala.

**20:00**, Erromeria Plaza Berrin edo Atsegindegín (San Joan konpartsak antolatuta).

### AUZOETAN

#### ORKOLAGAN:

**11:00**, Haur-jolasak.

**11:00-13:00**, Talo tailerra.

**12:00**, Toka herri txapelketa.

**14:30**, Auzoko bazkaria (paella).

**20:30**, Herriko taldeekin Rock kontzertua (Oi dek Oi, Eztanda eta Bloody brotherhood).

### MARTINDEGIN:

**18:00**, Haur eta gaztetxoentzat jolasak.



► EUSKALTEGIEN TXOKOA ◀

# Euskara biziz ikasi!

Euskara ez da ikasgelan soilik ikasten. Hori oso argi daukagu AEK-ko ikasleok.

Euskara ikasteko edo hobetzeko asmoz matrikulatu ginen euskaltegian, eta ikasteaz gain primeran pasatzen dugu ikasgelan. Baina klase-kanpo ere, jarduera mordoa egin dezakegu euskaltegiari esker. Alde batetik, irteerak egin ditugu, San Telmo museora, EITB-ra eta garunaren funtzionamendua aztertzen duen BCBL ikerkuntza zentrorra besteak beste. Bestalde, hainbat zilegi eskola egin da aurten; Sukaldaritza makrobiotikoa, ardo dastaketa... Eskola horietan ikasle zein herritarrek har dezakete parte, are gehiago, guk, ikasleok, herritarren parte hartzea biziki estimatzen dugu.

Jarraian adibide batzuk dituzue:



## Irteera SMT eta

**BCCra.** Otsailaren 12an "Badu Bada" erakusketa ikustera joan ginen euskaltegi-ko 25 lagun. Harrituta geratu ginen euskara ez zela hain hizkuntza txikia ikustean eta baita hitz batzuen jatorriarekin ere. Adibidez, harria celta dela eta alkate arabiarra. Beste sorpresa bat: gure argazkiak han zeuden telebistan! Ondoren Basque Culinary Center-era joan ginen bazkaltzera. Otordu galiziarra izan zen, itsaski, albariño eta guzti! Oso egun polita izan zen.



**Argazkilaritza tailerra.** Oso balorazio positiboa izan du otsailean zehar egin den hiru saioko tailerrak. AEK-k antolatu du eta gai-emailea lurre Salaberria hernaniarra izan da. Ikastaroan, oinarriko argazkilaritzaren nondik norakoak ikasi ditugu. Euskaraz egin da eta ikasle zein herritarrek izan dute parte hartzeko aukera.

*Hernanialdeko AEK-ko goizeko ikasle hasiberriak.*



**Sagardoaren laguntzaz erraz ikasten da.** Kurtso hasieran irteera egin genuen Petritegi sagardotegira. Sagardoaren prozesua ikusteko eta ikasteko aukera izan genuen bertan: sagarrondoak nola landatu eta zaindu, sagarra nola bildu eta txikitu, zukua nola iragazi eta hartitu... Hamaiketako eder batekin borobildu genuen bisita. Euskara erraz ikasten da... horrela bai!



**Harremonak.** Edurne Mendizabalekin egin genuen saioan harreman onei buruz aritu ginen. Oso saio bizia izan zen, gizona eta emakumezkoen ikuspuntuak, esperientziak, pentsamenduak trukatu eta eztabaidatu genituen. Argi gelditu zen gai honek ez duela amaierarik, beti dugula eta izango dugula zer hobetu.